

MARTXOAREN 8ko adierazpena

Azken bi urteetan Euskal Herriko mugimendu feministak Martxoaren 8an greba feminista arrakastatsuak eraman ditu aurrera, bizitzak eta haiek sostengatzeko zaintzak erdigunean jartzeko beharra mahai gainean jarritz.

Aurtengo honetan ez da grebarik egingo, ez arrazoirik falta ez zaizkigulako, gure aldarrikapenak egiteko modu eta formulak anitzak direlako baizik.

Martxoaren 8 honetan barrura begira jarri gara, antolakuntzan jarri nahi dugu fokua, mugimendu feminista indartsu batek ezinbestekoa baitu emakumeon arteko elkarlana eta elkar-aitortza. Elkarrekin antolatuz bakarrik lortuko baitugu gure borroka aurrera eramatea.

Aurten ere, beste urte batez, gure aldarrikapenak berresten ditugu: **Ataun feminista lortzeko bidean, pauso irmoak ematera gatoz!** Emakume eta gizonen arteko benetako aukera-berdintasuna bizitzako eremu guztietan aldarrikatu eta landu behar dugu, hezkuntzan, lanean, familian, lagunartean, militantzian, aisialdian eta gure arteko harremanetan.

Aurtengo martxoaren 8an ere Ataunen eta Goierrin antolatutako ekintza eta ekitaldietan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu herritarrak, beste urte batez, borrokara batu eta kaleak indarrez hartzeko!

Aurtengo martxoaren 8a ere ez da makala izango!

Ataungo EHBildu

Biboletak talde feminista

Ataungo EAJ

Jentilbaratza Kultur Elkarte

Agautza Guraso Elkarte

Joxemiel Barandiaran herri-ikastetxea

Aizkoate Kultur Elkarte

Otsoak Dantza Taldea

Ataun Irratia

Otsotarrak elkarte

Atsedentoki jubilatuen elkarte

Torto Gazte Asanblada

Barandiaran Museoa

ATAUNGO EGITARUA

Martxoaren 2tik 6rako astean zehar:

Joxemiel Barandiaran herri-ikastetxean **gaiari lotutako hainbat lan** egingo dituzte ikasleekin.

Martxoaren 7a, larunbata:

Aitzarri Elkartean **herriko emakumeen afaria**. Eman izena ohiko lekuetan.

Martxoaren 8a, igandea:

10:00etan San Martingo plazan elkartu

10:30ean **gosari-tertulia**

12:00etan **jolasak** ume eta ez hain umeentzat, **txapak** egiteko aukera...

13:00ean **bazkaria**, norberak etxetik ekarrita

16:00etan **Lazkaoko manifestaziora**. Arratsaldeko 18:30ean, eskualdeko **ekitaldia Beasaingo Pergoletan**.

Martxoaren 13a, ostirala:

Tailerra Gaztelekuan: *Genero-nortasuna eta aniztasun afektibo-sexuala*